



LIBURUA

Lehertu gabe oraindik



LARROSAK, NOIZEAN BEHIN JON IRIBERRI

EREIN, 1990

ARITZ GALARRAGA

Gerardo Markuletaren poesia atsegin izanik, eta ez gutxi, kuriositatea neukan jakiteko Jon Iriberrirena nolakoa ote zen –ez bainuen ezagutzen, *mea culpa*–. Iriberry, Markuletaren pseudonimo, heteronimo edo dena delakoa (eskizonimoa, sortzailearen hitzetan), bi poesia libururen sinatzailea. Lehena, *Larrosak, noizean behin*, 1990koa –baina 87 eta 89ko sorta saritu pare batean oinarri duena–; bigarrena, *Sagarraren hausterrea*, 1993koa –berria, beraz, nahiz poema pare bat, hemen al daketa txiki batzuekin, aurreko liburuan ere agertzen ziren–.

Hasieratik hasteko, lehen bilduma abiatzen da denborarekiko kezkatik –“aho zabal eta ilun bat besterik ez dut ikusten”–, laketzen da maite kontuetan –“gezurretan ari ziren poetak / ala

suziria sartu dit maitañoak”–, begiratzeko egunerokoari –“Nork du bere lanez / hitzek baino segurtasun urriagorik?”–, hiriari eta hiritarrari –“euren istorioen / pertsonaia haizen bezalaxe, / (...) heure istorioko eserleketan / agertuko zaizkik”–, goia jotzeko azken poema jakingarri batean, *Erretratoa*: “Bai, bizi izan naizela aitoren dagnat”. Bigarren bildumak ere segitzen dio izpiritu berari, gaietan ez dabil aparte, jarraipen bat igartzen zaio, nahiz forma aldetik laburragoak ere saiatu, are haiku modukoak –“Damu ekaitzerako / ez aterpe / ez goardasolik”–.

2007an, jada Gerardo Markuletak sinatzen zuen liburu bat, *Ezjakintasunak*, iruzkintzea egokitu zitzaidan. Aurrekoa halaber buruan –*Batak ez du bestea kentzen*, 2003koa, nire uste makalean

Markuletaren gailurra–, poesia egiteko molde jakin bat seinatzen nion, ahots bat, zeinak poema biluziak atsegin dituen, zuzenak, ekonomikoak, kontrastez beteak, jolastiak, erritmodunak, ironia finekoak. Horiek guztiak intuitu egiten dira Jon Iriberriren liburuetan, lausoki agian, modu enbrionarioan, lehertu gabe oraindik. Oraindik dira nahasi xamarra, ilunxeak, kriptikoagoak, iruditu zait batzuetan anekdota pribatuari lotuegiak. Markuletak gero erakutsiko duen argitasun, sinpletasun –ezen ez sinplekeria– hori gabeak. Alegia: Iriberry vs. Markuleta balizko bataila literario horretan, bigarrena ateratzen dela garaile, nabarmen. Zorioneko gaude hortaz, aktibo dagoena –nahiz azkenaldian batez ere itzulpengintzan– Gerardo Markuleta baita. ●